

Sanpedroak ERREKALDEN

Auzoa da baina egitaraua ikusita herri bat baino gehiago inbidiaz geratuko da ziur aski. Auzoko lagunaren doaneko lanaz, dendari eta ferianteen diruaz, eta bertoko elkarteen antolaketaz Errekalde hamaika jai egun izango ditu.

Basatien ordua

IÑAKI URIARTE

Pagasarriean, autobidepean, porlan eta zimenduz inguratuta, Bilboko auzo jai arrakastatsuenetako bat da Errekalden ospatzen dena. Asteburua bertan eman duzuenok horren berri izango duzue dagoeneko: zortzi txosna gelditu gabe, dantzan hankak nekatu arte, programaz kanpoko goizaldeko lehiaketak eta gura den beste jende.

Lehen asteburu honen aztarinak baretzen eta logura kentzen ari gara oraindino. Asteartea da, eta lehenengo asaltoaren burunda burutik kendu barik bigarrena prestatzen hasita gaude. Ai ene! Oraindik martitzena da, eta geu ere gauean joko duten sevillarrak bezala *Reincidentes* gara parrandan. Agian beraiekin jotzen dutenekin bezala jai hauen *Trauma* kendu gabe egongo gara aurrerantzean.

Biharkoan jai daukagu. Ostegunean Sorotan Beleren txanda da, ez dakigu inor plazan egoteko moduan egongo den, ordu bi lehenagoko merenge batailak denak ondo basituta utziko gaituelakoan nago eta. Aukera argi dago: dutxa etxean, ala suhiltzaileen mangerako ura plazan bertan. Eguraldia lagun, ume handiak ikusiko ditugu bits eta aparatuetan murgilduta, dena zuri, azkenean auskalo gainean duzuna merengea, jaboia ala zer demontre ote den.

Ostirala ahal den moduan igaro eta gero larunbatean pilota partiduak, bertsolariak, paella guretzat, hamabost koadrilen bazkaria, herri kirolak, trikitalariak, Egan, Mozorro dantza, zezen-suzkoa, txosnak, txokolatea... eta auzoan Josu, Pablo, Asier, Fernando, eta Txerra falta direla gogoraraziko duen amnistiaren aldeko kalejira ere.

Aizu ume, ez zaitetz etxean gelditu

Munduko denbora guztia eta jolas egiteko kemen nekagaitza duten umeek parada itxurosoa izango dute Errekaldeko jaietan. Polikiroldegiak eta autobide azpiko plazak eskaintzen duten marko paregabeen tiragoma txapelketak, jolasak, erromeriak neba-arreba nagusiak inkordiatzeko, futbitoia eta zinema daukazu egun guztietan, batea ez denean bestea.

Baina ez kezkatu, hau ez da dena eta. Gargantuaren sabeltzarrean sartu ahal izango zara

EGITARAUA


GAUR

- 12.00:** Txapak eta umeentzako tailerrak plazan.
15.00: Ume jolasak, ur eta konfetiz betetako globo guda
19.00: Rol jokoa zuzenean.
21.00: Rock kontzertua Bilboko Trauma taldea eta Sevillako Reincidentes-ekin.

BIHAR


- 11.00:** Ume parkea: gazteluak, ohe elastikoak, tirorako etxetxea, pizina, igel jokoak, eta abar.
16.00: Ume parkea: musika eta magia saio bi Hugo eta Zakiren esku. Eurria izatekotan parkea autobide azpian ipiniko da.
19.00: Jokalari ohien beisbol partidua El Fango polikiroldegian.
20.00: Dantzen erakusketa Arraizpe taldearekin.
22.00: Zinema. Oraingoan pipa eta karamelo barik.
Egun osoan: Gargantua.

mailukizko karamelo bat izango bazina legez; gainera, txapen tailerra, tirorako txabolak, ohe elastikoak, igel lehiaketak, ttu-ttu egiten duen tren, merenge gerra, suhiltzaileen bitsa, buruhandi eta erraldoiak eta marrazki lehiaketa ere izango dituzu...



XOUSE SIMAL

Errekaldeko auzokide guztien artean antolatzen dituzte jaiak.



RESPALDIZA

MAHAIKO ARDOA

BOTILATZAILEA:
SATURNINO RESPALDIZA, S.A. - Alondiga Gaztelondo
48002 BILBO



Arraitz
Euskaltegia

93B-1C GORDONIZ
Tel.: 443 59 80



arrate hnos., s.l.

ARDANDEGIAK

BULEGOA - BILTEGIAK:
Gaztelondo - Errekaldeberri (Alondiga Berria)
Tel.: 421 97 00 - 444 24 35 - 48002 BILBO

PLANTA BOTILATZAILEA
Gernika - Tel.: 625 11 26
ARDANDEGIA: Eltziego (ARABAKO ERRIOKA)